

## SEIGARREN KAPITULUA

La Vache eta bion arteko elkarrizketa luzea.  
Setatsuk Alfa eta Omegaz hitz egiten dit.  
Sekretuen Gurpil Handia jiraka hasten da.  
Balantzategin gauza latzak gertatzen dira.

1. Zelakoa da La Vacheren barruko ahotsa? Zer esaten dio etengabe?
2. Zer da *Alfa* eta *Omega* izatea? Zer iritzi dute horretaz bataren eta bestearen ahotsek?
3. Zer dira *makis*-ak? Zer esperientzia izan zuen Mok moja ttikiarekin batera?
4. Balantzategin gauzak ez dira ematen dutena. Zergatik? Zer da benetan Balantzategi? Zer dauka pentsuak horretan zerikusirik?
5. Zergatik uste du Antiaju Beltzak Balantzategin irrati bat dutela?
6. Zer gertatu zen apirileko goiz hartan, Antiaju Berde eta Moren begiradak egokitu zirenean? Zer tranpa prestatu zuten?
7. Nor da Usandizaga? Zelan amaitzen du?
8. Usandizaga izenak Euskal Kulturari zelako garrantzia dauka? Ba ote du zerikusirik liburukoarekin?

---

**Gogoeta**

1. Askatasunari buruz hitz egiten dute: basurdeak ala behiak, zeintzuk diren libreago...  
Zer da zuretzat askatasuna? Zelan izan gaitezke libreago?...

---

**Hiztegia. Eman ondoko hitz hauen esanahia:**

Soildu, hausnarrean egon, txinparta, miatu, zentzatu, ezpa(da), saietera, uraren txirraia, mortutasuna, itobeharrean, txabila, ganbela, erkitu, xahutu, lotxusta